

## ‘Gune Anitza: Erronkak errealitate bilakatzeko liburuxka’ aurkeztu du EGK-k

- Aholku eta gomendio orokorrak barnebiltzen ditu, ondoren espazio bakoitzak bere errealitatera moldatu ahal izateko
- Aniztasuna zeharkako balore bezala txertatzen lagundu nahi du

*Bilbon, 2017ko uztailaren 4an.* Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) ‘Gune Anitza: Erronkak errealitate bilakatzeko liburuxka’ aurkeztu du gaur goizean Bilbon. Maialen Olabek, EGK-ko presidentak, adierazi duenez “2016an Gune Anitza zigilua aurkeztu genuen, Aniztasunarekiko aldeketasuna erakusteko baliagarri izan nahi duen. Ordutik, atxiki diren hainbat espaziotik zalantzak aurkeztu dituzte eta liburuxka honen bitartez argitzea espero dugu Aniztasuna zeharkakotasunez lantzeko gomendio bidez”.

Olabek jakinarazi duenez aholkuak “orokorrak” direla, eta “espazio fisiko zein birtualek” filosofia hori oinarri izanda euren errealitatea aztertu eta moldatu beharko dutela. Era berean, nabarmendu du espazio birtualentzako aholkuak batik bat hizkuntzari buruzkoak direla: mezu, irudi eta bestelako komunikazioetan hizkuntza barne-hartzailea erabiltzea eta LGTBI+fofia edo mezu baztertzailak lekurik ez izatea.

Espazio fisikoei egindako proposamenen artean bi nabarmendu ditu Norma Ageitosek, EGK-ko Berdintasun teknikariak. Batetik, “gazteok erabiltzen ditugun espazioen alde pribatuenean ere Aniztasunaren eredu guztiei erantzutea”, hau da, komun aldagela eta antzeko espazioak ere “norbanako guztien beharretara egokitzea eta anonimotasunerako eskubidea ziurtatzea”. Bestetik, “erreferenteez hitz egiten duten guneetan Aniztasunaren isla diren erreferente positiboak bilatzea, gazteok estereotipoak eta aurreiritziak uko egiteko”.

### Egoera gatazkatsuei erantzuteko pautak

Ageitosek adierazi duenez liburuxkak “beste baliozko tresna bat du: Izan ere, Indarkeria LGTBI+fofikoa izatera iristen ez diren baina gatazkatsuek diren egoeren aurrean pautak eta EGKren bitartekaritza eskaintza”. EGK-ko Berdintasun teknikariaren hitzetan, “elkarlanerako eta EGK eta guneen arteko harremana mantentzeko baliozkoa izango dela” espero dute, baita Gune Anitza zigilura atxikita dauden espazioek baliabideak izatea sor daitezken gatazken aurrean erantzuna emateko.

Honekin batera, ezagutzera eman ditu 2016-2017an zehar Gune Anitza zigilura atxiki diren espazioen zerrenda: Pikara magazine, Abadiño Sex Zerbitzua, Atara Zarata antzerki taldea, TaPuntu, Lahia-Nahia Elkartea, Gasteizko EQUO alderdia, Lekeitioko Eskola Publikoa, Marienea Basauriko Emakumeen Etxea, Bizkaiko Urtxintxa eskola eta Errespetuz elkartea.

Ez daude soilik LGTBI+ elkarleak, ezta ere gaira konkretuki dedikatzen diren espazioak. “Honek erakusten du gizartean badagoela ‘Aniztasunaren zeharkakotasunaren’ behararen ideia: edonork bat egin dezake aldeketasuna erakustearekin, ez soilik bazterkeria egoera bizi dutenek edo bizi dutenekin harreman zuzena dutenek”, adierazi du Berdintasun teknikariak.

Azkenik, Olabek aurreratu du etorkizunari begira helburua “ahalik eta espazio gehien” atxikitzea dela, liburuxkan ezartzen diren gomendioak martxan jartzeko eta horrela “Aniztasuna zeharkako balore bezala txertatzea bizitzako esparru guztietan”.